

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU ERASOAK JASAN
DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA EMATEKO
ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOA APLIKATZEKO
NEURRIAK (2008)

Erakundeen Arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioa hedatzeko eta ezartzeko erakundeek 2008an abian jartzea aurreikusitako neurriak biltzen dira jarraian –akordioa 2001eko urriaren 18an sinatu zen–¹. Honako dokumentu hau 2008ko maiatzaren 28an onartu zuen Jarraipen Batzordeak, eta bertan jasotako neurriak akordioan parte hartzen duten erakundeen arabera daude banatuta.

1. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

- 1.1. Gobernuak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan abian jarritako sentsibilizazio jardueretan parte hartzea.
- 1.2. Herritarren artean emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako arazoak ezagutaraztea, baita Euskadiko egungo egoera eta bilakaera ere. Horretarako, informazio estatistikoa hedatuko da Herrizaingo Sailaren prentsa-zerbitzuaren bitartez.
- 1.3. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzen kasuan, erakundeen erantzun-protokoloa aplikatzen parte hartzea.
- 1.4. Ertzaintzak ezagututako arau-hausteetatik abiatuta, etxeko indarkeriako edota askatasun sexualaren aurkako delituak egin dituztenei buruzko aldagai estatistikoak aplikatzen jarraitzea.
- 1.5. Herrizaingo Sailak dituen estatistikak aztertzea emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen eragina baloratzeko.
- 1.6. Etxeko indarkeriarekin edota sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako arau-hauste penalen biktimen estatistika bidaltzea Emakunderi sei hilabetetik behin (urtarrila eta uztaila) eta urtero (urtarrila). Ertzaintzak ezagututako datuetatik abiatuta egin behar da estatistika eta aurreko epeko datu konparatiboak ere jaso behar ditu.
- 1.7. Lanekin jarraitzea delituak gertatzen diren lekuen tipologiari buruzko azterketa estatistikoa egiteko eta aipatutako arau-hausteak gertatzen diren leku publikoak arretaz ikertzea.
- 1.8. Sexu-erasoei, etxeko tratu txarrei eta kalitatearen kudeaketari buruzkoak segurtasun kontseilariordearen 3., 48. eta 51. jarraibideak eguneratzea eta egokitzea gerta litezkeen lege aldaketan arabera.
- 1.9. Ertzaintzako kideek emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako arazoen inguruan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten beste alderdietan duten jakintza sustatzea. Horretarako «Ertzaintza Gaur» eta «Harlax» argitalpenak erabiltzen dira.

¹ Fiskaltzari dagozkion neurriak ez dira dokumentuan jaso, ez baititu neurriak Jarraipen Batzordearen Idazkaritzara bidali.

- 1.10. Ertzaintza trebatzeko programan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, garaiz antzemateko eta aurre egiteko prestakuntza era egonkorrean eta derrigorrean sartzen jarraitzea.
- 1.11. Ertzainei etxeko indarkeria eta genero indarkeriaren inguruko ikastaro espezifikoa ematen jarraitzea. Horretarako, hainbat kategoria eta funtziotara egokitutako iraupena eta edukiak dituzten ikastaroak eskainiko dira.
- 1.12. Etxeko indarkeriaren edota genero-indarkeriaren biktimak era iraunkorrean babesteko 2003an hasitako programa aplikatzen jarraitzea.
- 1.13. Fiskaltzarekin etengabeko harremanean jarraitzea etxeko indarkeria egoeren jarraipena egiteko. Kasu larrienei buruzko informazioa elkartrukatuko da, bi alderdiek egin beharreko jarduerak koordinatuz eta etxeko indarkeria eta genero indarkeriaren kasuistika jorratuz.
- 1.14. Ertzainek eskura dituzten baliabide guztien berri emango diete tratu txarrak jaso dituzten emakumeei. Era berean, autobabesteko neurriei buruzko prestakuntza jasotzeko aukera emango diete ikus-entzunezko materiala erabilia eta informazio liburuxka bat emanda.
- 1.15. Tratu txarren salaketetan ustezko erasotzaile diren gizon guztiei, beren jokabidea mantenduz gero izango dituzten ondorio penalak ezagutaraziko zaizkie, baita gizarte zerbitzuek erasotzaileen jokaera aldatzen laguntzeko dituzten programak ere.
- 1.16. Poliziaren esku-hartzeari dagokionez, indarkeriaren aurkako tokiko protokoloetan parte hartzen eta horiekin batera lanean jarraitzea.
- 1.17. Administrazioak edo herri-eragileek herritarrak genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko antolatzen dituzten jardunaldietan parte hartzea.

2. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

- 2.1. Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioaren gizarte zerbitzuetako azpibatzerdean lanean aritzea indarkeriaren biktima izateaz gain bestelako arazoak dituzten emakumeentzat harrera zerbitzu bat sortzeko proiektuan.
- 2.2. Ekintza zuzena deklaratzeko eta etxeko indarkeriaren biktima diren eta behar bereziak dituzten emakumeentzako harrera zerbitzu baten kudeaketa kontratatzeko izapideak egiten hastea.
- 2.3. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei telefono bidezko arreta eskaintzeko zerbitzuaren bidez egiten diren erakundeen arteko koordinazio lanak sustatzea eta indartzea.

- 2.4. Diru-laguntzetan lehentasuna ematea indarkeria jasan duten emakumeei arreta eta laguntza emateko gizarte-egitasmoei.
- 2.5. Indarkeria zikloaren prebentzio goiztiarra egiteko jardunbide egokiak ikertu eta biltzeko ikerlan bat kontratatzea.
- 2.6. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako telefono bidezko zerbitzua zabaltzeko kanpaina egitea.
- 2.7. Hirietan eginak dituzten beldurguneen mapak aztertzea gomendio orokorren katalogo bat egiteko. Katalogoaren bidez, hiriaren diseinua aztertuko da gunehoriek neutralizatzeko eta pertsonak seguru sentituko ez diren guneberrien sorrera ekiditeko irizpideak finkatzeko.
- 2.8. Genero-indarkeriaren biktimentzat babestutako etxebizitzaren inguruan egiten diren eskaera eta esleipenen jarraipena egitea eta urtero Emakunderi jarraipenaren nondik norakoak jakinaraztea. Neurri hori, Genero Indarkeriaren Biktimei Etxebizitzaren Arloan Laguntzeko Neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko Aginduak arautzen du.
- 2.9. Diru-laguntzetan lehentasuna ematea gizarte-zerbitzuetako profesionalei zuzendutako genero-indarkeriako heziketa-ikastaroei.
- 2.10. Udalei eta mankomunitateei diru-laguntzak ematea, etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei aurre egiteko tokian tokiko protokoloak gara ditzaten.
- 2.11. Kulturartekotasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza ematea oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileei.
- 2.12. Emakunderekin elkarlanean aritzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta deuseztatze sentsibilizazio-kanpainetan.
- 2.13. Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloaren aplikazioan parte hartzea.
- 2.14. Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokiko osoko bilkuretan eta adierazleen lantaldeetan parte hartzen jarraitzea.
- 2.15. Akordioaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitzea, baita Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren eta Gizarte Zerbitzuetako Azpibatzeriaren bileretan ere.

3. EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

- 3.1. Genero-indarkeriari eta familiaren barruko indarkeriari buruzko II. batzarra antolatzea, Euskadin aplikatzen ari diren politika eta ekimen nagusien hedapena errazteko, baita politika horiek diseinatzen, kudeatzen eta exekutatzen dituztenen arteko eztabaida eta esperientzia-trukea laguntzeko ere. Azken helburua,

- erakundeek genero indarkeriari eta familiaren barruko indarkeriari ematen dioten erantzuna hobetzea da.
- 3.2. Lurralde historiko bakoitzak hiru hilean behin egitea genero-indarkeriaren aurrean babes integrala emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren jarraipena. Protokoloa 2005ean izenpetu zuten Gobernu Salako ordezkari batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu idazkariak, probintzia auzitegiek, epaile dekanoeak, Fiskaltzak, Emakundek, Herrizaingo Sailak, udaltzaingoeak, profesionalen elkargoek, gizarte zerbitzuek, Berdintasunerako Erakundeak eta Justizia Sailak.
 - 3.3. Justiziaren Euskal Behatokiaren baitan emakumearen aurkako indarkeriari buruzko lantalde iraunkorraren ikerketa jardueri eustea, ondorioak atera eta jarduera proposamen finkoak egiteko.
 - 3.4. Beste elkarte batzuek antolatutako heziketa-jardueretan parte hartzea.
 - 3.5. Lurralde historiko bakoitzean Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralari buruzko ikastaro bana antolatzea abokatuentzat.
 - 3.6. Organo judizialeatik Babes Aginduen Erregistro Zentralera telematikoki igorritako babes-aginduen eraginkortasunaren jarraipena egitea, uneoro eguneratuta daudela ziurtatzeko.
 - 3.7. Genero-indarkeriarekin, etxeko indarkeriarekin eta sexu-erasoekin lotutako *www.justizia.net* webguneko edukiak eguneratzea eta hobetzea, biktimei zein gainontzeko eragileei informazio zehatza emateko.
 - 3.8. Emakumeen aurkako indarkeriaz arduratuko diren epaitegien sorrera sustatzea behar hori antzematen denean (esaterako, Barakaldoko kasua).
 - 3.9. Gizarte-zerbitzuekin koordinazioa areagotzea, biktimei arreta hobea bermatzeko.
 - 3.10. Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.
 - 3.11. Babesteko Agindua koordinatzeko zentro bat sortu eta abian jartzea, horrela, orain arte horretaz arduratu diren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzuek lan bat gutxiago izango dute.
 - 3.12. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren koordinazio-zentroaren baliabide informatikoak diseinatzea eta ezartzea. Horrela, hobeto kudeatuko dira babesteko aginduak eta kautelazko edota segurtasunezko neurriak jasotzen dituzten mota guztietako ebazpen judizialak.
 - 3.13. Erakundeen arteko akordioan aurreikusitako batzordeetan eta azpibatzaordeetan parte hartzea.
 - 3.14. 2006ko abenduaren 15ean Genero Indarkeriaren Sentsibilizazio eta Prebentzio Plan Nazionala onartu zenetik, Justizia Ministerioak eta autonomia erkidegoek

- osatutako batzorde teknikoetan parte hartzea, genero-indarkeriako epaitegietako eragile juridikoak hezteko ikastaroetarako irizpide komunak ezartzeko.
- 3.15.Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen bitartez, erakundeen arteko akordioa ezagutarazten jarraitzea ikastaroetan, hitzaldietan, jardunaldietan...
- 3.16.Unibertsitateko curriculumaren barruan genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari buruzko mintegiak mantentzea, eta ikasgai horiek azterketetan ebaluatzea (Medikuntza Fakultatea, Lege Medikuntza ikasgaia).
- 3.17.Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak jokaera-protokoloa baloratuko du agresioak eta sexu-erasoak izaten direnean. Horretarako, Osasun Sailarekin jarriko da harremanetan, protokoloa aplikatzean izan litezkeen balizko arazoengatik inguruko informazioa jasotzeko eta horiek hobetzeko bitartekoak jartzeko.
- 3.18.Emakumearen aurkako indarkeriaren balorazio osoa egiteko unitateak sortzea izaera funtzionalarekin. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak eta Talde Psikosozial Judizialeko kideek osatuko dituzte unitateak.
- 3.19.Jarraipen Batzordean genero-indarkeriaren edota sexu-erasoen biktimei laguntza juridikoa emateko eta ofiziozko txanda ezartzeko akordioa ebaluatzea. Legekariei Euskal Kontseiluarekin izenpetutako akordioak izan ditzakeen arazoak zuzentzea eta beharrezko hobekuntzak ezartzea da helburua.
- 3.20.Biktimei zuzendutako arreta-zerbitzuek funtzionatzeko dituzten metodoak ebaluatzen jarraitzea, hutsuneak antzemateko eta hobekuntzak ezartzeko.
- 3.21.Biktimei laguntzeko zerbitzuen prestazioak areagotzea, garaiz esku-hartzea sustatzeko.
- 3.22.Biktimei Arreta Eskaintzeko Zerbitzuen eta gainerako eragileen arteko koordinazioa areagotzea Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Integrala emateko Neurrien Legearen eraginkortasunerako koordinazio-protokoloen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eremuan.
- 3.23.Erakundeen arteko elkarlana sustatzea, genero-indarkeriako delituen ondorioz zigortutakoak tratamenduan jartzeko baliabideak ezartzeko.

4. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

- 4.1. Etxeko tratu txar eta sexu indarkeria kasuetarako osasun protokoloaren hedapen eta ezarpen sistematikoari buruz Osakidetza 2007an egindako Kontratu Programetan lehentasunezko eskaintzaren bidez ebaluatzea.
- 4.2. Informazioa biltzeko sistema egokitzeko prozesua burutzea, Osakidetza ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako kalitatezko datu zehatzak izateko.

- 4.3. Etxeko tratu txar eta sexu indarkeriarentzat ezarritako aurreko osasun protokoloaren eguneratzea amaitzea.
- 4.4. Protokoloa eguneratu berria argitaratzea eta banatzea.
- 4.5. Tratu txarrak garaiz antzemateko eta osasunaren arloan nola jokatu jakiteko heziketa moduluak diseinatzea medikuntzako eta erizaintzako profesionalentzat (ikastaroak, tailerrak edota saio klinikoak).
- 4.6. Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin aldi berean bilerak egitea, Euskadiko Osasun Protokoloa aplikatzean izan daitezkeen balizko arazoak antzemateko eta horiek zuzentzeko neurriak hartzeko.
- 4.7. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak adostutako eta Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartutako materiala osasun langileen eta pazienteen artean banatzea.
- 4.8. 2008ko Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko kanpainan parte hartzea.
- 4.9. Erakunde guztientzako komunak diren neurriak hartzen eta aplikatzen parte hartzea.

5. EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- 5.1. Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren eta Jarraipen Batzordearen lana sustatzea eta koordinatzea.
- 5.2. Erakundeen arteko akordioa ikuskatzeko prozesua koordinatzea 2001ean sinatu zenetik egin diren legezko eta bestelako aldatetara egokitzeko.
- 5.3. *Emakumeen Aurkako Indarkeria* txostena eguneratzea. Bertan, besteak beste, Erakundeen Arteko Akordioaren eremuan Jarraipen Batzordeak eta Talde Teknikoak landutako jarduerak biltzen dira.
- 5.4. Emakunderen webguneko *Emakumeen Aurkako Indarkeria* atala aldiro-aldiro eguneratzea eta osatzea, Erakundeen Arteko Akordioaren baitan egindako jardueren informazioa emateko eta Jarraipen Batzordearen zein Talde Teknikoaren lana ezagutarazteko.
- 5.5. Eusko Jaurlaritzaren web orrian (*euskadi.net*) berdintasunaren inguruko gai eremu bat sortzea (*Berdingune*), eta bertan emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako atal bat sartzea.
- 5.6. *Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko Masterraren* gainean Deustuko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari jarraipena ematea, eta horrez gain, haren irakasle izatea eta ikasleei bekak ematea.

- 5.7. HAE Erekin eta gainerako erakunde eskudunekin batera, gizarte zerbitzuetako langileentzako emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko ikastaro bat sustatzea.
- 5.8. Erakunde publikoei zein pribatuei aholkularitza teknikoa ematea akordioarekin lotutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeke.
- 5.9. Beste erakunde batzuek Akordioaren inguruan antolatutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea.
- 5.10. Lehendakariaren lidergoan eta Emakundek kudeatzen duen *Gizonduz* ekimenaren barruan, berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra gizonen inplikazioa lortzea helburu duten ekintzak bultzatzea.
- 5.11. *Berdintasunerako Naro Gunean* emakumeen aurkako indarkeriaren kontra gizartearen ohartarazteko ekimenak egin daitezela bultzatzea.
- 5.12. Eskoletan egiten den *Nahiko* programaren barruan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra ohartarazteko eta hura prebenitzeko ekimenak burutzea.
- 5.13. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioari eta Emakumearen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Gobernuaren Ordezkaritza Bereziari Erakundearen Arteko Akordioaren baitan egindako jardueren berri ematea. Horretarako, txostenak egingo dira eta koordinazio-bileretan parte hartuko da.
- 5.14. Azaroaren 25eko egunaren kariatara Berdintasunarek (*Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea*) antolatutako sentsibilizazio-kanpaina laguntzea.
- 5.15. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzat hartuta, dibulgaziozko eta sentsibilizaziozko materialak prestatzea eta hedatzea.
- 5.16. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei aurre egiteko erakundearen erantzun-protokoloa koordinatzen eta ezartzen parte hartzea.
- 5.17. Institutuaren diru-laguntzen dekretuetan emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeke eta prebenitzeko jarduerak antolatzeke eta biktimak laguntzeke lehentasuna ematen dioten balorazio irizpideak sartzea.
- 5.18. Gizarte-zerbitzuen eremuan datuak biltzeko sistema bateratua eratzeke koordinazio eta sustapen-lana jarraitzea.
- 5.19. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak*, aurreikusitakoak betez, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak laguntzeko programa arautuko duen dekretuaren prestaketa koordinatzea.
- 5.20. Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behatokia laguntzea eta bertan parte hartzea.
- 5.21. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51.2* artikulua ezarritakoak betez, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden osasun eta arreta psikologikoa eskaintzeko baliabideen eta bitartekoen eraginkortasuna eta irismena ebaluatzea.

6. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- 6.1. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei aurre egiteko jokaerak hobetzeko gidak, protokoloak eta materialak egiteko eta hedatzeko lanetan parte hartzea, hala adosten denean.
- 6.2. Beste erakunde batzuek akordioarekin lotuta antolatzen dituzten heziketa eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak...).
- 6.3. Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainaren diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea, betiere egin beharreko jarduerak aldeztatik ezagutzen bada eta parte-hartze ekonomikoa proportzionalki ezartzen bada.
- 6.4. Biktimetako laguntzen eta indarkeriaren zikloaren inguruko sentsibilizazio, informazio eta hedapen-jardura egitea azaroaren 25ean, bereziki Arabako landa-eremuetako herritarrei zuzenduta. Helburu nagusia herritarrei garaiz antzematen erakustea eta laguntzaile bezala joka dezaten lortzea da.
- 6.5. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.
- 6.6. Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio-bileretan parte hartzea.
- 6.7. Arabako lurralde historikoan erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko mahai lurraldetarra eratzea eta protokoloaren jarraipena egitea.
- 6.8. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzu espezializatuak ematen jarraitzea: biktima izandako emakumeei eta erasotzaile izandako gizonei arreta psikologikoa, emakumeentzako orientazio juridikoa, tratu txarren biktimekin lotutako prozesu juridikok jarraitzea, harrera-etxeak, heziketa eta akonpainamendu-programak harrera-etxeetan zein beraien etxeetan dauden emakumeentzat.
- 6.9. Arreta espezializatuko zerbitzuak eta emakumeen aurkako indarkeria kasuetako arretarekin, prebentzioarekin eta koordinazioarekin lotutako beste jardura batzuk garatzeko Gasteizko Udalarekin sinatutako elkarlanerako hitzarmena luzatzea.
- 6.10. Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen arreta hobetzeko Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Abokatuen Elkargoak sinatutako elkarlanerako hitzarmena garatzea eta luzatzea.
- 6.11. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Clara Campoamor Elkarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sinatutako elkarlanerako hitzarmena garatzea eta luzatzea. Hitzarmenak indarkeria jasan duten emakumeei

eta adingabeei arreta psikologikoa, juridikoa, hezkuntzakoa eta soziofamiliarra emateaz arduratzen diren profesionalentzako heziketa-proiektu bat gauzatzea ahalbidetzen du.

- 6.12. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduan esku hartzeko protokoloaren arabeko beharrezko koordinazioa garatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen eremuan.
- 6.13. Gizarte Zerbitzuetako eta elkarteetako profesionalak emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako esku-hartze jarduera zehatzetan hezte. Helburua, indarkeria-zikloa garaiz antzematea eta indarkeria fisikoa zein autoindarkeria prebenitzea da.
- 6.14. Gasteizeko Udalarekin indarrean dagoen elkarlanerako hitzarmenaz baliatuta, 2005ean berrargitaratutako *Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako gida* banatzea eta, beharrezkoa izanez gero, eguneratzea.
- 6.15. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailaren arteko hitzarmena luzatzea eta garatzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa pilotu bat diseinatzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko. Programaren helburua etorkizunera begira Arabako lurralde historikoan sexua-generoa sistemaren gaineko hezitzaileak izango direnak trebatzea da.
- 6.16. Arabako Foru Aldundiaren eta San Prudentzio Lan Fundazioen arteko hitzarmena luzatzea eta garatzea, indarkeriaren biktima izan diren emakumeei enplegua bilatzean tutoretza emateko proiektua gauzatzeko. Hitzarmen horren arabera, jarraipen teknikoa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egingo du.
- 6.17. AMAPASEkin sinatutako elkarlanerako hitzarmena luzatzea, prebentzio-programa bat garatu eta emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko. Horretarako, sentsibilizazio eta informazio-kanpainak egingo dira, bereziki landa-eremuetan. Era berean, heziketa-jarduerak ere garatuko dira. Bikoteen arazoak eta gatazkak konpontzeko moduak aztertuko dira jarduera horietan, eta helburu inplizitua hurrengoak izango da: emakumeek indarkeriaren zikloa ezagutzea eta, biktimak izanez gero, beren burua ziklo horien barruan ikusteko gai izatea.
- 6.18. Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei eta beren kargu dauden pertsonei zuzendutako familiako laguntza psikosoziala emateko programa berezi bat abian jartzea, erasotzailea bizi den etxean gelditzea edo hara itzultzea erabakitzen duten emakumeei eta familia horietan bizi diren menpeko pertsonei laguntzeko. Hala, krisi-egoerei aurre egiten zaie eta egoera bakoitzari egokitutako irtenbide egokiak aurkitzeko baliabideak ikasten dituzte.

- 6.19. Harrera etxeetan bizi eta tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza eskaintzeko programa bat abian jartzea. Emakume horien kargura dauden menpeko pertsonak zaintzea izango da helburua.
- 6.20. Barneko Prestakuntza Planean sartzea indarkeriaren hasierako zikloa garaiz antzematen ikasteko eta indarkeria fisikoa nahiz autoindarkeria prebenitzeko prestakuntza jarduerak.
- 6.21. Tratu txarren biktima diren emakumeentzat zubi etxebizitzak prestatzea.
- 6.22. Udal jardueraren protokoloak garatzeko ildoak lantzea, etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei tokian tokiko arreta hobetzeko. Arabako landa-eremuetako errealitatea ere kontuan izango da.

8. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- 8.1. Etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei eman beharreko arretaren eta erakundeen arteko akordioaren inguruko heziketa eta sentsibilizazio-jardueren diseinuan eta irakaskuntzan parte hartzea.
- 8.2. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia Osoko Bilkura eta genero-indarkeriaren adierazleen lantaldea burutzen ari diren lanari jarraipena ematea. Lantaldeak Bizkaian dihardu, eta organoa osatzen duten erakundeetako hainbat ordezkari osatzen dute. Honako hauek dira dagozkion egitekoak: informazioa biltzea eta Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta hobea emateko onartutako datuak biltzeko fitxak hedatzea. Fitxa horietatik abiatuta, datuak zentralizatzea eta datu-base batean sartzea da helburua. Horrela, genero-indarkeriak Bizkaiko lurralde historikoan duen egoera ezagutu ahal izango da, datu fidagarriak eta homologagarriak izango dira, eta datuak denbora eta espazioan alderatu ahal izango dira. Lantalde honek egingo ditu Bizkaian genero-indarkeriari eragiten dioten zerbitzu eta prestazioetan hobekuntzak sustatzeko gomendioak eta proposamenak.
- 8.3. Bizkaiko Baliabideen Atlasa eguneratzea eta garatzen jarraitzea, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko webgunerako. Baliabideen Mapan jasotzen den informazio guztia garatu eta grafikoki irudikatzen da Atlasean. Herri, eskualde edo azpieskualde bakoitzean dauden zerbitzuak deskribatzen eta izendatzen ditu Baliabideen Atlasak, genero-indarkeria jasan duten Bizkaiko emakumeen beharrei emandako erantzun instituzionalaren hedapena eta izaera irudikatzeko asmoz.
- 8.4. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko dauden gizarte-zerbitzuen inguruko informazioa biltzeko datuak jasotzeko sistema automatizatu

- hobetzea. Datuak udaletakoak, mankomunitateetakoak zein Aldundikoak izan daitezke, baina betiere 2007. urtekoak.
- 8.5. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei emandako arretari dagokionez, gizarte eremuko datuak biltzea. Horretarako, aurreko atalean aipatutako datuak biltzeko sistema automatizatua erabiliko da. Prozesua Eudelekin koordinatuko da eta informatzaileen sarea egonkortu egingo da.
- 8.6. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakumea eta Familia Zerbitzuko webguneko Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia ataleko edukia aldiro-aldiro eguneratzea eta areagotzea.
- 8.7. Emakumeei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuan lehentasuna ematea harrera eta aholkularitza juridikoa zuzenki ematearekin lotutako balorazio irizpideei.
- 8.8. Etxean indarkeria jasaten duten emakumeen gaian espezializatutako Familia Arloan Esku Hartzeko Programa indartzea. Erasotzailearen etxebizitzan gelditzea edo hara itzultzea erabakitzen duten biktimei edo erasotzailearekin bizi ez arren berriz harekin bizitzen hasteko arriskua dutenei laguntza psikosoziala eskaintzeko helburua du programak, baita familia horiekin bizi diren adingabeei ere. Programak egoerari aurre egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasunak eta baliabideak ematen dizkie. Programa aldatuta, programa eskaintzen duen lantaldea indartuko litzateke.
- 8.9. Ustezko tratu txar eta sexu-erasoen kasuetan familiari arreta psikologikoa eskaintzeko programa indartzea eta deszentralizazio prozesua garatzen jarraitzea, hala, Bizkaiko lurralde historikoan bizi diren eta tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakume eta adingabeek lekualdatzeko arazoak badituzte, beraiek dauden inguru geografikoan arreta jaso ahal izango dute. Horrela, arreta psikologikoa jasotzeko zerbitzua erabiltzea erraztuko zaie.
- 8.10. Etxean indarkeria erabiltzen duten (batez ere amari eraso egiteko) adingabekoetan espezializatutako familiako esku-hartze programa berria diseinatu eta abian jartzea. Bigarren eta hirugarren mailako prebentziozko esku-hartzeak egingo dira proiektu horretan psiko-heziketazko lanean oinarrituta eta bi helburu nagusi izango ditu: alde batetik, adingabeak berreztea rol sexistak hartzea eta indarkeria erabili eta justifikatzea baztertuko duten sinesmen, jarrera eta balioak izan ditzaten. Horrela, belaunaldiez gaindiko indarkeria moztuko da batetik, eta bestetik, gurasoek heziketa baliabideak izango dituzte seme-alaben indarkeriazko jarrerak moldaerazkoagoak diren jarreretan bihurtzeko. Familia sisteman mugak kontrolik gabe igarotzea ahalbidetzen eta onartzen duten sinesmen eta jarrerak landu ahal izango dituzte. Programa gauzatu ahal izateko, kontratazio-prozedura bat jarriko da abian.
- 8.11. Telefono bidezko aldi bereko itzulpen zerbitzua kontratatzea. Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera

zentroetan (bai urgentziaz hartzen dituzten emakumeen kasuan, bai epe ertain-luzerako geratzen direnentzat) bertan bizi eta hemengo hizkuntza ez dakiten erabiltzaileek izan ditzaketen aldizkako itzulpen beharrak aseko lirateke. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Emakumea eta Familia zerbitzuko profesional taldeak zerbitzua dagoen lokaletan emakume horiekin dituzten zuzeneko harremanetan izaten dituzten hizkuntza beharrak ere aseko lirateke.

8.12. Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina finantzatzen parte hartzea.

8.13. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.

9. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

9.1. Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenen datuak biltzea Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartutako fitxaren bidez.

9.2. Gizarteratze zerbitzuan araututako diru laguntzak (gizarteratzeko errenta aktiboa, oinarritzko errenta, gizarte larrialdietarako laguntzak, eta abar) eskuratzeko eskakizunak betetzen ez dituzten biktimentzat prestazio ekonomikoen partida bat izatea.

9.3. Larrialdietarako harrera zerbitzu bat sortzea tratu txarrak jasandako emakumeei eta horien seme-alabei behar duten giza laguntza eta laguntza materiala eskaintzeko (laguntza juridikoa, epaiketara laguntzea, eta abar).

9.4. Genero-indarkeriaren arloan Udaletako gizarte zerbitzuak informatzea, aholkatzea eta beraiekin koordinatuta lanean aritzea.

9.5. Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordean, Erakundeen Arteko Talde Teknikoan eta dagokien azpibatzerietan parte hartzea.

9.6. EUDELe emakumeen aurkako indarkeriaren arloan deitutako bileretan parte hartzea.

9.7. Emakundek sustatutako azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren finantzazioan eta hedapenean parte hartzea.

9.8. Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua 24 ordutan eskaintzea.

9.9. Tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz gertatutako heriotzetan protokoloa aplikatzea.

10. EUDEL- EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA²

- 10.1.EUDELen webgunean bidez, Erakundeen Arteko Akordioa eta EUDELeke ordezkaritza duen gainontzeko partaidetza-organoetan garatzen eta lantzen diren protokoloak zein jarduerak ezagutaraztea.
- 10.2.Legezko xedapenen ondorioz ezarritako eta adostutako jarduerak abian jartzen dituzten udal-langileak hezteko guneak proposatzen jarraitzea.
- 10.3.EUDELen eta HAEEn arteko hitzarmenaren esparruan, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dieten udal langileentzako prestakuntza eskaintzen jarraitzea; horretarako, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko udal protokoloak egiteko hirugarren ikastaroa antolatu du.
- 10.4.Etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta emateko tokian tokiko protokoloak abian jartzeko jarraibideen gida hedatzen jarraitzea.
- 10.5.Udaletako teknikarien arteko truke-guneak antolatzea. Horrela, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako baliabideen, zerbitzuen eta prebentzio metodoen inguruko esperientziak eta hausnarketak elkarrekin trukatzeko.
- 10.6.Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal baliabideen Arabako eta Gipuzkoako mapa amaitzea eta eguneratua mantentzea.
- 10.7.EUDELen webgunean Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal baliabideak ezagutaraztea.
- 10.8.Aurkeztzen diren lege-ekimenak eta gainontzeko testu arau-emaileak aztertzea, hobetzeko ekarpenak eta oharrak egiteko.
- 10.9.EUDELen baliabidearen bidez, gizarte-zerbitzuetan babes-agindua ezartzeko protokoloa hedatzea.
- 10.10.EUDELen web orrian etxeko indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan aplikatu beharreko protokoloa hedatzea.
- 10.11.Etxeko indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa aplikatzen laguntzea.
- 10.12.Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea (Berdinsarea) sendotzea.
- 10.13.Erakundeen arteko akordioan aurreikusitako batzordeetan eta azpibatzerdeetan parte hartzea.
- 10.14.Azaroaren 25ean egingo den 2008ko Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean erabiliko diren produktuak diseinatzea eta Euskadiko udalen esku jartzea.
- 10.15.Azaroaren 25ean egingo den Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunerako adierazpen erdua prestatzea eta Euskadiko udalen esku jartzea.

² Hona hemen Eudelek egiteko aurreikusitako jarduerak, Euskal Udalek gai honetan egin ditzaketen jarduera zehatzei kalterik egin gabe.

10.16.Europako «Stop Domestic Violence Against Women» kanpainan parte hartzea.

11. LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA

- 11.1.Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren laguntzarekin, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen inguruko prestakuntza-ikastaroak antolatzea abokatuentzat; ikastaro horiek nahitaez egin beharrekoak dira, bai berariazko ofizioko txandan izena emateko, bai eta txanda horretan jarraitzeko ere.
- 11.2.Akordioaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitzea, baita Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren eta Gizarte Zerbitzuetako Azpibatzeren bileretan ere.
- 11.3.Beste erakunde batzuek Akordioaren inguruan antolatutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea.
- 11.4.Etxeko indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa aplikatzen laguntzea.
- 11.5.EAEko lurralde historiko bakoitzerako Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak bultzatutako eta koordinatutako Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa Bermatzeko Neurriei buruzko Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduen eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloaren jarraipena egiten laguntzea.

12. EUSKAL KONTSEILU MEDIKOA

- 12.1.Medikuek arriskua duten kasuak antzeman ditzaten sentsibilizazio lana egitea.
- 12.2.Tratu txarrak garaiz antzemateko eta horri dagozkion mediku jarduerak egiteko medikuntza eta erizaintzako profesionalei zuzendutako prestakuntza sustatzea, bultzatzea eta prestakuntza horretan parte hartzea (ikastaroak, mintegiak, saio klinikoak).
- 12.3.Lehen mailako asistentzian etxeko tratu txarrak patologia gisa antzematea eta horien tratamendua hobetzea.
- 12.4.Emakume pazientei eskura ditzaketen baliabideen berri ematea.
- 12.5.Mediku unitatean erreferentzia izatea (LMT).
- 12.6.Erakundeek etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzen jarraitzea.
- 12.7.Emakunderekin elkarlanean jarraitzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta deuseztatzeko sentsibilizazio-kanpainetan.

12.8.Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitzea, bai eta Erakundeen arteko Talde Teknikoarenetan ere.